



www.begiko.com

© 1997, Ana Rossetti
© 2018, Itzulpena: Idoia Aranberri
© Euskarazko argitalpena:
2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.
Legizamon poligonoa
Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.
48450 Etxebarri
Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-15-5
Lege-gordailua: M-1287-2018
Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:
Joseba Santxo eta Maite Malagon
Edizioa:
Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja
Errealizazioa:
Miren Pellejero
Zuzenketa:
Ane Barrenengoa
Arte-zuzendaritza:
José Crespo eta Rosa Marín
Proiektu grafikoa:
Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco


Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Kutxa bete dinosaurio

Ana Rossetti

Irudiak: Alfonso Gómez

begiko



Lierren hanburgesak uraza, tomatea eta tipula dauzka.

Telmorenak, gazta fresko irabiatua eta beikon tiratxo batzuk.

Nikorenak, aza, azenario birrindua eta mahonesa.

Maiarenak, berriz, luzokerra, piper berdea eta ozpinetako luzokertxo.

Eta Gorkarenak, barrengorriak eta pipermorrea.

Eta guzti-guztiek dute ketchup mordoa eta ziape piloa.

Baina hanburgesa etxean jan ala
hanburgesategian jan alde handia dago.
Hanburgesategian opari mordoa ematen
dizute eta dibertigarriagoa da. Gainera,
hanburgesa etxean jatea hondartzara
Xixona turroia eramatea bezain
6 desegokia da... Gogaikarria benetan!

—Badakizue zergatik ez zaien gustatzen
nagusiei guk hanburgesak etxetik kanpo
jatea? —galdetu du Lierrek ahapeka.




—EEEEEEZZZ —erantzun dute beste lau lagunek, mauka-mauka jateari utzi gabe.

—Bada, etxekoak ez diren hanburgesek kolesterola dutelako —esan du Lierrek, harro-harro.

—Ba al dakizu zer den kolesterola, Gorka? —galdetu du Nikok.

7

—Zera..., gauza osasungarriak jan behar ditugula, horixe! —erantzun du Gorkak.



—Bai zera! —esan du Telmok—. Odolean, zizzzzzz, sartzen zaizun gauza bat da.

—Gantza da —argitu du Lierrek.

—Horixe: gantza. Neuk esan dudana —errepikatu du Gorkak—; hau da, gauza osasungarriak jan behar dituzula, zainak gurinez ez betetzeko.

8

—Gurinak motroiloak osatzen ditu zainetan eta itxi egiten dizkizu —azaldu du Maiak.

—Ez, gogortu egiten dizkizu eta ezin dituzu ez besoak ez beste ezer tolestu —esan du Lierrek.

—Estutu egiten dizkizu, eta odolak pasatzeko tokirik ez duenez...

—Buuuuuuunnnnn! Eztanda egiten dute —gehitu du Telmok.

—Ez dute eztanda egiten: bihotzekoak ematen dizu —zuzendu du Lierrek.

—Eta hil egiten zara? —galdetu du Gorkak.

—Jakina. Hil egiten zara —erantzun diote.

—Ene! —hasperen egin du Gorkak—, ze pena! Pozoi gozoa!



Hanburgesak gozo baino gozoago
egon direla onartu beharra dago. Di-da
batean jan dituzte denak.

—Ez al dizue pena ematen amaitu
izanak? —galdetu du Maiak.

—Mmm, bost jango nituzke —esan du
10 Telmok—: bata bestearen atzetik!

—Baita zera ere!

—Bada, nik hogeita bost —bota du
Gorkak.

—Gezur galanta! Ez dira hainbeste
hanburgesa gorputzean sartzen —esan
du Nikok.



—Eta zuk nola dakizu?

—Jakin dakit eta oraintxe bertan frogatuko dizut.

—Hona hemen zure sabela —esan du Nikok—, eta hanburgesak, ogi eta guzti, hiru hatz luze dira. Ea, jarri hatzak hortxe, hanburgesa balira bezala. Berehala ikusiko dugu zenbat hanburgesa sartzen zaizkizun, ahora heldu arte.

11



Eta Gorkak ezkerreko eskuko hiru hatz jarri ditu sabel parean, eta eskuineko beste hiru.

—Bi hanburgesa.

Jarraian beren hatzak jarri dituzte besteek ere. Lierrek, lau hanburgesa!

12 Telmok, sei hanburgesa! Maiak, zooortzii!!

—Ikusten? Bederatzi baino gehiago jaten badituzu, ahotik irtengo zaizkizu —esan du Nikok.

—Bada, niri esan didate asko janez gero, hazi egingo naizela. Eta hogeita bost hanburgesa jaten baditut, luzatu egingo naiz eta, orduan bai, sartu egingo zaizkit —ondorioztatu du Gorkak.

—Ba al dakizu nondik ateratzen dituzten hanburgesak, Gorka? —esan du Maiak.




—Okela txikitzeko makinatik; nondik bestela?

14 —Ez. Hanburgesategietako hanburgesak bai, makinetakoak izaten dira horiek —esan du Lierrek, barreari eutsi ezinik—, baina etxekoak mamutaren okela zatitxoaz egiten dira.

Gorka isil-isilik gelditu da, baina nazka aurpegia jarri du.

«Mamutarenak! —pentsatu du—. Botaka egiteko gogoa sartu zait».

—Kar, kar, kar! Gaur egun ez dago mamutik —barre egin dute guztiek.



—Bai, badira —esan du Gorkak
temati—. Telebistan ikusi ditut.

—Eta nik behiak hegaz ikusi ditut
telebistan. Hara bestea! —esan du Nikok
txantxetan.

